

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren sektoreko jarduera % 7,6 hazi da 2025eko bigarren hiruhilekoan


Eraikuntzak % 10,5 egin du gora eta Ingeniaritza zibilak Ingeniaritza Zibilak % 1,7ko hazkundera izan zuen urte arteko terminoetan

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren sektoreko jarduera, prezio korranteetan, 2025eko bigarren hiruhilekoan aurreko urteko hiruhileko berean baino % 7,6 handiagoa izan da, Eustatek landutako datuen arabera.

Hiruhileko honetako prezio korranteen urte arteko hazkundera batez ere eraikuntzaren sektorearen portaera positiboagatik gertatu da, % 10,5eko igoerarekin; Ingeniaritza Zibila % 1,7 hazi zen 2024ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturako indizea obra-motaren arabera

Urte arteko tasa. Egutegiko eraginak zuzenduta



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea (EKI)

2025eko bigarren hiruhileko honetako sektorearen jarduera aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, 2025eko lehena, Eraikuntzaren koiunturako indizea, % 1,7 igo da termino nominaletan edo uneko prezioetan, dagozkion urtaro-ondorioak atera ondoren. Eraikuntzan jarduera % 2,6 igo da aurreko hiruhilekoaren aldean eta Ingeniaritza Zibilean % 2,2 jaitsi.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak. Uneko prezioak (p). 2025/II

	Uneko prezioak		
	t/t-4	t/t-1	At/At-4
Indize orokorra Euskal AE	7,6	1,7	6,1
Eraikinak	10,5	2,6	8,3
Ingenieria zibil	1,7	-2,2	1,7
Araba/Álava	8,4	1,2	7,7
Bizkaia	7,6	1,9	5,1
Gipuzkoa	7,5	1,4	7,2
Indize orokorra higiezinaren sustapenik gabe	6,2	1,2	5,2
Higiezinaren sustapenik gabeko eraikuntza	8,3	1,9	6,9
Langile okupatuaren indizea Euskal AE	3,3	1,1	1,7

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urte arteko aldakuntza-tasa. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t/t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. Datu desestazonalizatuak

At/At4 Urte arteko aldakuntza-tasa metatutako aldiaren, urteko 1. hiruhilekotik behatutako azken hiruhilekora arte (At), aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean (At-4). Egutegiaren ondorioen datu zuzenduak

Data 2025eko Irailaren 5a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

2025eko bigarren hiruhilekoan, Eraikuntzaren sektorearen jarduerak gora egin du urte artean: % 8,4 Araban, % 7,6 Bizkaian eta 7,5 % Gipuzkoan. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Eraikuntzaren koiunturako indizea % 1,2 igo da Araban, % 1,9 Bizkaian eta % 1,4 Gipuzkoan.

Higiezinaren sustapenaren jardueraren eragina kontuan hartu gabe, Eraikuntzaren jarduera, urte artean, 2024ko hiruhileko berean baino % 8,3 handiagoa izan da, eta hiruhileko artean, berriz, % 1,9 igo da. Eraikuntzaren sektore osoa, *Higiezinaren sustapena* kontuan hartu gabe, % 6,2 igo da 2024ko bigarren hiruhilekoaren aldean eta, aurreko hiruhilekoaren aldean, % 1,2.

Landunen indizea, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean % 3,3 igo ondoren, aurreko hiruhilekoan (2025-ko lehenengo hiruhilekoan) baino % 1,1 handiagoa izan da 2025eko bigarren hiruhilekoan.

Informazio-oharra

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % 89,9-ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62